



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*



## ENPRESEN AHOLKU FOROA

2020ko urriaren 8a

### GAI-ZERRENDA:

1. Agurra
2. Ereduaren azalpena: [Foro Consultivo Dossier Actividad Económica Getxo V08102020.ppt](#)
  - a. Helburuak eta funtzioak
  - b. Komunikazioa
  - c. Kronograma
3. Kudeaketan, ekintzen eta eskatutako izapideen erakusketa.
4. Gauzatu beharreko proiektuen arteko lehentasunak.

### BERTARATUTAKOAK: (% 92,00)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	AUSENTZIAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Ostatuen ordezkaria	Javier Angulo	X		
Taxien ordezkaria	Jose Ignacio López		X	
Kirol-aisialdikoek ordezkaria	Hector Garcia	X		
Interpretazio-zentroen, gidarien eta bidaia-agentzien ordezkaria	Ainhoa Sarriegi	X		
Merkatarien ordezkaria				
Getxo Enpresa	Elena Cantera	X		
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Algortako Dendak	Amaia Sertutxa	X		
Ostalaritzakoek ordezkaria				
Restaurante Algorta	Monica César	X		
Restaurante Neguri, Portu Zaharra eta kirol portua	Diego Castellanos	X		
Algortako tabernak	Jorge Alonso	X		
Getxo Enpresa	Maria del Fresno	**		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Mirene Zabalgogea	X		
	Sonia Urdiain	X		

\*\* Lehen ordu erdian baino ez da egon



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

## **1/2.- Kontsulta Foroaren azalpen laburra**

---

- a. Zer den eta nola jarduten duen
- b. Nortzuk diren Foroako kideak

Atal honetan teknikariak azaldu du esperientzia enogastronomikoen mahaiaren ordezkariak baja hartu duela eta mahaia ez dela bildu.

Horrelako eskaintzak egiten dituzten negozioetako asko ostalaritzaren sektorekoak dira. Horregatik, proposatu da jarduera horretan interesatuta dauden negozio eta establezimendu guztiak sar daitezela ostalaritzako mahaian, eta konpromisoa hartzea eguneko aztergaien zerrendan sartzeko landu beharreko alderdi guztiak.

Ontzat jo dute; beraz, hurrengo deialdian egingo da.

Gainera, foro honetan ari diren ostalaritzako enpresen ordezkariaren berri eman da. Gaur egun, Getxo Enpresa elkarteak ordezkaria izendatuta dauka, Maria del Fresno, baina beste biek ez: ez Asohgek, ez Romo Bizirik ez dute izendatu beren ordezkaria. Gai hau hainbat aldiz aztertu da sektoreko enpresekin Ostalaritzaren Mahaian.

Momentuz, harik eta egoera konpondu arte, hauteskudeetan boto gehien lortu dituzten mahaietako kideei bidali zaie deialdia.

- c. Funtzioak

Informazio gehiago: ikusi aurkezpenerako erabili den dokumentua.

Informazio guztia Udalaren web orrian jartzen da:

[Getxo - Getxon bizi - Getxolan - Enpresen Kontsulta Foroa - Enpresen Kontsulta Foroa](#)

## **3. Kudeaketan, ekintzen eta eskatutako izapideen erakusketa**

---

### **Merkataritza**

- Gabonetako kanpaina, Getxo Bono 2020 eta Getxo Moda 2021 beste era batera antolatzea.
- Getxo Bono 2021 eredu berria aztertzea.
- Deialdia: Lanbide laguntzak lansaio erdiko kontratuak egiteko.
- Udalerriko saltokiak Googlen posizionatzeko eta digitalizatzeko kanpaina.
- Herrian kontsumitzeari buruzko sentsibilizazio-kanpaina.
- Gaintzako aparkalekua irekitzea (2020ko Gabonak).
- Udalerriko beste leku batzuetan (San Nikolas, Santa Eugenia, ...) dauden



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

aparkalekuak eraginkortasun handiagoarekin kudeatzea.

- Erosketen truke TAOren hobaria lortzeko aukera.
- Gune berean ezaugarri bereko saltokien kopurua mugatzea.
- Getxo Bono 2020 komunikazio eta sustapen kanpaina indartzea, eta baldintzak aldatzea, kanpainako kontsumoa gehitzeko.
  - a. Kanpaina luzatu: urtarrilaren 5era arte (Errege bezpera).
  - b. 20 €-ko bonuak erdira murriztea. Murrizketaren ondoren 20 €-ko 20.640 bonu egongo lirateke eta 40 €-ko 24.080 bonu.
  - c. Bonuak txarteleko: kontuan izanik gastu-ahalmen handiko pertsonen erosketa gehiago egin ditzaketela, proposatzen dute erosleak berak erabaki ahal izatea zenbat bonu eskuratzen dituen bere txartelarekin.
  - d. Erosketa bakoitzean erabil daitezkeen bonuak. Lehengo baldintza mantentzea: gehienez lau bonu erosketako.
- “Ahaztutako” aldeetan ere (Erromo eta Andra Mari) sustapena eta dinamizazioa.
- Merkataritza-kaleak: mantentze-lanak, argiak eta garbiketa.
- Mugikortasun jasangarria (GetxoBizi otzarekin + GetxoBus + Hobariak garraio publikoa erabiltzeko).

## Ostalaritza

- Laguntza teknikoa terrazak handitzeko eskaerak ebatzeko.
- Gazte-taldeen pilaketak: zaintza eta ohartarazpenak.
- Herritarrei segurtasun-neurrien berri emateko eta horien ardura hartzeko kanpaina.
- TAOren hobarien sistemak.
- Getxoko ostalaritza-sektoreko produktuen, eskaintzen eta zerbitzuen sustapena eskaintza espezializatua eta zerbitzu gehigarriak baliatuz.
- Balorazioa: ostalaritzan Getxo Bonoa erabiltzeko publizitate-kanpaina txikia eta baldintzak aldatzea kanpainako guztirako kontsumoa gehitzeko.
  - a. Kanpaina luzatzea: urtarrilaren 5era arte (Errege bezpera).
  - b. 20 €-ko bonuak erdira murriztea. Murrizketaren ondoren 20 €-ko 20.640 bonu egongo lirateke eta 40 €-ko 24.080 bonu.
  - c. Bonuak txarteleko: kontuan izanik gastu-ahalmen handiko pertsonen erosketa gehiago egin ditzaketela, proposatzen dute erosleak berak erabaki ahal izatea zenbat bonu eskuratzen dituen bere txartelarekin.
  - d. Erosketa bakoitzean erabil daitezkeen bonuak. Lehengo baldintza mantentzea: gehienez lau bonu erosketako.
- Merkataritza-kaleak: mantentze-lanak, argiak eta garbiketa.
- Gaintzako aparkalekua ireki.
- Udalerriko beste leku batzuetan (San Nikolas, Santa Eugenia, ...) dauden aparkalekuak eraginkortasun handiagoarekin kudeatzea.
- Ereagan AO ezartzeko proiektuari buruzko informazioa, eta horrek kirol portuan edukiko duen eraginaren berri ematea.
- Egungo egoera kontuan edukita, arautegia malgutzea: arreta leihatiletan, III. eta



# Getxo

*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

## IV. taldeak – II. taldea

### **Gidariak / bidaia-agentziak / Int. zentroak**

- Getxo destino modura sustatzea: taldeak – bezeroak, gidariak eta Zubia
- Aisialdiko naturgunea sustatzea, udalerriaz gaindikoa (Erandio, Leioa, Berango eta Getxo).
- Portu Zaharra mantentzeko lanak hobetzea.

### **Taxiak**

- Taxietan publizitatea ipintzeko aukera aztertzea.
- Erreserben aplikazioaren bertsio berrian <publizitatearen salmenta> ipintzeko aukera aztertzea.
- Sektoreak Getxoberrin egin dituen ekimenak ikusgarriago ipintzea.

### **Ostatuak**

- Protokoloa aztertzea, finantzabideak lortzeko laguntza emateko aukera.
- Turismoa sustatzeko kanpainen xedea zabaltzea eta intentsitatea areagotzea.
- Turismoa sustatzeko kanpainetan berariazko informazioa ezartzea ostatu-establezimenduei buruz.
- Udala zergak eta tasak gutxitzea edota horien ordainketa malgutzea.

### **Kirol-aisialdia**

- Egingo den kirol portuaren proiektua aurkeztea bertan egongo diren enpresei.
- Portuan dauden enpresei azaltzea zertan den egungo egoera (segurtasun-protokoloa, zona komunen garbiketa eta zaintza, nabigazioa sustatzea, gau-igarotzeak bultzatzea – 6. zerrenda).
- Herritarren artean kirol-aisialdiko jarduerak egiteko neurri higienikoen eta osasun-neurrien berri zabaltzeko kanpaina – asmoa konfiantza sortzea da.
- Udalerriko herritarrek kirol-aisialdiko jarduerak kontsumitzea sustatzeko kanpaina.
- Ek. Sust. Arloak abiarazten dituen programa eta ekimen guztien berri ematen duen gidatxoa prestatzea.
- Lan-taldea sortzea Flysch-aren inguruan ari diren enpresekin (eskaintza antolatzea eta baliabidea eta eskaintza aintzatestea).

Parte hartzeak:

#### 1.- MERKATARITZAKO KANPAINAK

Galdetu da ea dakigun zenbatekoa izango den Udalaren kanpainen barruan egiten diren publizitate-kanpainen itzulkin ekonomikoa. Adibidez: saldoen merkatua.



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Teknikariak azaldu du komunikazio-planak antolatzen direnean zenbait aldagarri hartzen direla kontuan: aurrekontua, kanpainaren iraupena, jasotzaileak, komunikabide bakoitzaren eragina eta abar. Nolanahi ere, ez dago metodorik finkatuta kanpainek enpresetan duten eragin ekonomikoa kalkulatzeko.

Datuak emango dira.

## 2.- TAXIAK

Taxietan publizitatea ipintzea onartuz gero, proposatzen da herriko negozioiek hobaria edukitzea tarifetan.

## 3.- BALIABIDEAK:

Esan da bi baliabide garrantzitsu, Galeako gotorlekua eta itsasargia, ez direla ustiatzen eta horiek atontzea lagungarria izan litekeela herriaren garapenerako.

## 4.- KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK:

ABEEen egon diren edo dauden enpresek ezin dute inor kontratatu ABEE behin betiko bertan behera utzi ezean; hori dela eta, esan dute ez dakitela zer enpresak jaso ahal izango dituzten laguntza horiek aurtzen.... Informazioa Lanbiderekin egiaztatu.

## 4.- Aurkeztutako proiektuak

---

**1. Getxoko produktuen eta zerbitzuen kontsumo arduratsua getxoztarren eta kanpoko bezeroen artean sustatzeko eta horren inguruko ardura hartzeko kanpainak egitea, on line zein off line.**

Deskribapena

Uste dute 2020an hasitako kanpainak indartu behar direla, komunikazio freskoago eta zuzenagoaren alde eginik, eta gutxienez 2021. urtera arte mantendu behar direla; eremuak:

1.- Merkataritzari, ostalaritzari eta kirol-aisialdiari buruzko informazioa zabaltzeko kanpaina, batez ere Bizkaiko bezeroak erakartzeko.

2.- Turistak erakartzeko kanpaina (garrantzi handiagoa emanik ostatu-eskaintzari), eta sustapen-ekintzak talde eta bezero zuzenak erakartzeko jasotzaileetara eta gidariengana, eta zeharkako bezeroak ostalaritzara, kirol-aisialdira eta baliabideetara.

3.- COVIDaren inguruko neurriez kontzientziatzeko kanpaina: Covid-aren inguruan gertatzen diren arau-aldaketen berri zabaltzea enpresen artean, eta gaixotasunari aurre egiteko neurrien berri herritarren artean, denok ezagutu ditzagun eta bete ditzagun.

4.- Flysch-aren inguruko eskaintza aintzatestea eta horren aldeko lankidetzeta.



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Helburuak	Bezeroak erakartzea eta kontsumo arduratsua indarberritzea
Esku hartuko duten arloak	Ekon. Sustapena, Komunikazioa, Ingurumena (*), Bideak (*) (* ) 4. gaia bakarrik.

**2. Informazioa, aholkularitza eta laguntza sektoreko enpresei honako gai hauei buruz: administrazio-baimenak, finantzaketa, salbuespenak, zergetako murrizketak edota hobariak, langabeak kontratatzea, eta abar.**

Deskribapena	Udalaren eta sektore guztietako enpresen arteko komunikazioak eta izapideak azkartzea.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"><li>• Terrazen baimenak izapidetzeko prozedura berria diseinatzea.</li><li>• Udalaren eta enpresen arteko komunikazioa eraberritzea (batez ere turismoaren sektoreko enpresak).</li><li>• Laguntza ematea enpresen diru-sarrerak gehitzeko edota gastuak/hobariak murrizteko estrategiak ezartzeko.</li><li>• Kontrataziorako laguntzen deialdia egitea.</li></ul>
Esku hartuko duten arloak	Barne Araubidea, Hirigintza, Diruzaintza, Ekonomia Sustapena

**3. Hiriko merkataritza eta ostalaritzako espazioen hirigintza (hiriko enpresa-sarea):**

Deskribapena	Jarduera ekonomiko handiko espazioak hobetzearekin lotutako gai guztiak aztertzea.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>**Garbiketa, mantentze-lanak eta argiak hobetzea.</b></li><li>• Hutsik dauden lokalen okupazioa sustatzeko politikak ezartzea.</li></ul>
Esku hartuko duten arloak	Ingurumena, Hirigintza, Ekonomia Sustapena, Idazkaritza,..

\*\* Honek lehentasuna beste bien aldean.

**4. Hiriko mugikortasunaren kudeaketa hobetzea**



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Deskribapena	Hiriguneetako irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko ekintzak ezartzea, garraio publikoa bultzatuz, batik bat: aparkalekuen eskaintza, bidegorriak, TAO edota garraio publiko hobariduna, Getxobus, ...
Helburuak	Herritarrei aukera ematea Getxon eroso kontsumitzeko, eta modu jasangarrian, gainera
Esku hartuko duten arloak	Azpiegitura, Bideak, Ingurumena

## 5. Beste era batera antolatzea jarduera ekonomiko sustatzeko eta herrian bertan kontsumitzea bultzatzeko kanpainak.

Deskribapena	COVIDak ekarri duen egoera berria kontuan hartuta, eta jakinik ekintza, programa eta ekitaldi guzti-guztiak aztertu behar direla, ezinbestekoa dugu horien guztien xedeak aldatzea.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"><li>• Getxo Bono 2020 kanpaina ebaluatzea eta beste era batera antolatzea 2020ko Gabonetako kanpaina</li><li>• Beste era batera antolatzea Getxo Moda 2021</li><li>• Helburuak zehatz-mehatz finkatzea, bonuak kudeatzeko zenbait eredu aztertzea, eta ezarriko den bonu-eredua adostea eragileekin.</li></ul>
Esku hartuko duten arloak	Ekonomia Sustapena, Bide publikoak, Herritarren segurtasuna

## 6. Kirol Portuaren inguruko enprekin hitz egiteko plana (egungo egoera eta etorkizuneko eredu)

Deskribapena	Kirol Portuaren kudeatzaileen eta bertako enpresen arteko komunikaziorako eta iritzi-trukerako ekintzak abiaraztea, proiektuaren helburua lortzeko asmoarekin.
Helburuak	1- Egungo ereduaren akatsak (enpresek identifikatutakoak) zuzentzea, eta proposatzen diren hobekuntzak ezartzea (urgeruzaren segurtasun-protokoloa; zona komunen garbiketa eta zaintza; nabigazioa sustatzea; gau-igarotzeak bultzatzea – 6. zerrenda) 2- Kirol portu berriaren proiektuaren berri ematea, enpresek beren ekarpenak egin ditzaten eta epe ertaineko / luzeko kudeaketa prestatzen has daitezten.
Esku hartuko duten arloak	Ekonomiaren Sustapena // El Puerto Deportivo El Abra Getxo SA



## 5. Proiektuen arteko lehenetasunak

Mahai barruan proiektuen arteko lehenetasunak ahalik homogeneoak izaten lagunduko duen tresna bat aurkeztu da eta nola erabili behar den azaldu da.

Proiektuen arteko lehenetasunak ezartzeko fitxa;

<b>PROIEKTUAK EBALUATU ETA LEHENESTEKO FITXA</b>						
	1. proiektua	2. proiektua	3. proiektua	4. proiektua	5. proiektua	6. proiektua
<b>1. TOKIKO GARAPENEO ESTRATEGIAREKIKO KOHERENTZIA (40 puntu)</b>						
Proiektua bat dator esparru estrategikoekin.						
Proiektuak eragin positiboa dauka hainbat sektoretan.						
Eragina udalerrri osoan.						
<b>2. PROIEKTUA (60 puntu)</b>						
Tokiko enpresetako bolumenean <u>irismena</u> /eragina						
Egingarritasuna (hura gauzatzeko zailtasun-maila)						
Proiektua egikaritzeko epea						
<u>Jasangarritasuna</u> (ekonomikoa, soziala eta <u>ingurumenekoa</u> )						
Kanpo-laguntza						
<b>PUNTAUZIOA, GUZTIRA:</b>						

Emaitzako lehenetasunak:

<b>PROIEKTUAK EBALUATU ETA LEHENESTEKO FITXA</b>						
	1. proiektua	2. proiektua	3. proiektua	4. proiektua	5. proiektua	6. proiektua
<b>1. TOKIKO GARAPENEO ESTRATEGIAREKIKO KOHERENTZIA (40 puntu)</b>	35,55	30,55	28,33	27,22	33,66	22,77
Proiektua bat dator esparru estrategikoekin.						
Proiektuak eragin positiboa dauka hainbat sektoretan.						
Eragina udalerrri osoan.						
<b>2. PROIEKTUA (60 puntu)</b>	52,77	51,66	38,33	41,11	48,88	31,11
Tokiko enpresetako bolumenean <u>irismena</u> /eragina						
Egingarritasuna (hura gauzatzeko zailtasun-maila)						
Proiektua egikaritzeko epea						
<u>Jasangarritasuna</u> (ekonomikoa, soziala eta <u>ingurumenekoa</u> )						
Kanpo-laguntza						
<b>PUNTAUZIOA, GUZTIRA:</b>						





# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

## 6.- Erabakiak (ENPRESEN KONTSULTA FOROA; 2020-10-08):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea	Udal teknikariak	2020-10-13
2. Proiektuen arteko lehentasunen berri ematea kontrasteko mahai politikoari		2020-10-15
3. Esperientzia enogastronomikoek eskaintzen dituzten enpresei dei egitea Ostalaritzaren Mahaiaren azken saiorako, behar diren gaiak aztertze.	Udal teknikariak	Bileratik aurrera
4. Elkarrekin Ostalaritzaren Mahaian edukiko duten ordezkariak finkatzea	Getxo Enpresa Romo Bizirik ASOHGE	2020-10-30 baino lehen
5. Sustapen eta komunikazio kanpainen eragin-adierazleak txertatzea, eta horien berri ematea mahaiari eta foroari.	Udal teknikariak	Bileratik aurrera
6. Taxietan publizitatea ipintzea onartuz gero, herriko enpresek "hobaria" edukitzeko aukera aztertzea.	Udal teknikariak	Bileratik aurrera